



Kaixo, neska-mutilak!

*Konturatu orduko, pasatu
dira udazkena, negua,
udaberria eta UDA heldu da.*

*Gure ingurua ere aldatzen ari da, bero egiten du, horregatik,
arropa arinak jantzi behar ditugu, baita sandaliak ere,
behatzak erakusten, a, zelako freskura!*


*Pixka bat nekatuta egongo zarete. Eskolan ondo pasatzen da,
baina nekatu ere egiten da, batzuetan zelako urduritasuna
pasatzen duzuen, e? Beste batzuetan, zelako barre algarak,
e? Batzuetan ondo, beste batzuetan ez hain ondo. Baina,
azkenean amaitu dira eskolako egunak!*



*Izozki erraldoi bat jan dut! Bainujantzia jantzi eta banao
hondartzara! Bazatozte nirekin? Goazen bada! Oporrak! Opor
luze-luzeak gozatzera!*






Muxu asko lagunak!


Lorentxo











PUZZLEA 2: OINARRIA

A. URTAROAK

→ Puzzlea: Uda

UDA


EGUZKIAK GOGOR JOTZEN DUENEAN,
HONDARTZARA JOATEN HASTEN GARENEAN,
IZOZKIAK JATEN HASTEN GARENEAN,
BAINUJANTZIA SOINETIK KENTZEN EZ DUGUNEAN,
ETXEAN AHALIK ETA DENBORA GUTXIEN IGAROTZEN DENEAN,
GURE AZALA GORRITZEN EDO BELZTEN DENEAN,
EGUNAK AMAITUKO EZ DIRELA EMATEN DUENEAN,
GAUETAN ERE BERO EGITEN DUENEAN,

UDA DA...

... ONDO PASATZEKO GARAIA...
BEROA LAGUN DUEN URTAROA.










ARBOLA



HOSTOAK



ESKUAK

